

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ELGOIBARKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den ekainaren 29an Elgoibarko Udalaren eta bere tokiko erakunde autonomo diren Udal Kirol Patronatua eta San Lorenzo Egoitzaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldikoa. 2015eko maiatzean Udalak erabaki du San Lorenzo Egoitza GFari eskualdatzea.

HKEEk **aldeko iritzia** eman du Elgoibarko Udalaren **Kontu Orokorra** osatzen duten erakunde guztien kontuei dagokienez, udalaren ibilgetuko saldoei dagokien unean uneko salbuespen batekin.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakutsi duen **finantza egoera** aztertu du eta azpimarratu du **eragiketa arruntetan orekak** sarrera arrunten % 17 inguru egin duen **aurrezki gordina** sortu duela. Aurrezki hau azken ekitaldietako batez besteko urteko inbertsioaren pareko da. Horregatik guztiagatik, Udalak **ez du zorpetze** bidea baliatu beharrik izan eta are **Diruzaintza erabilgarria** handitu duten **superabitak** ere eskuratu ditu; Diruzaintza erabilgarriak 2015eko abenduaren 31n sarrera arrunten % 35 egin du.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udal artekaritzak jaulkitako txostenaren arabera, **2015ean aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela.**

Bai Udalak bai erakunde autonomoek **zuzentasunez bete dute** ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz azaleratu den 2012an BEZik gabe lizitazio tipoaz gainera prezioa eskaini zuen irabazi asmorik gabeko erakunde bati 333.598 euroren kontratu bat esleitu zitzaiola.